

GOBERNUA ZEU IZAN.

Ez da lan erraza Nafarroako herri ekimeneko euskaltegiek azken urte eta erdi pasatxoan egin duten bidea labur eta argi azaltzea. Izan ere, 2004ko udazkenean izan genuen Nafarroako Gobernuaren hurrengo urterako aurrekontu proposamenaren berri, alegia, orain bi urteko udazkenean jakin genuen ordura arteko diru laguntza eskasak murrizteko asmoa zuela Gobernuak.

Luze joko luke asmo hura gauzatu ez zezaten Nafarroako IKAk eta AEKk eginiko ahaleginak banan-banan azaltzeak: Foru Parlamentuko alderdi politiko guztien ordezkariekin eginiko bilkurak, euskaltegietako ikasle eta irakasleek eginiko elkarretaratzeak, manifestazioa, esku-orrien banaketak...

Alferrik, baina! UPN eta CDNko parlamentarien botoak aski izan baitziren 2005eko aurrekontuak onartzeko; Nafarroako herri ekimeneko euskaltegiak, IKA eta AEKkoak funtsean, diru aldetik itozteko zorian uzteko. Beraz, 2004an Gobernuak eman zizkigun diru laguntzak heren batera ekarri zituzten 2005ean. Orain bi urte 528.957€ jasotzetik, iaz 180.000€ jasotzera igaro ziren Nafarroako herri ekimeneko euskaltegiak; 2004an ikasleko eta eskola orduko 0,95€ jasotzetik, 0,30€ jasotzera 2005ean. *Sari* bikaina eman ziguten, hortaz, euskara ikasi nahi duten nafarrei zerbitzu publikoa eskaintzen diegun euskaltegi eta gau-eskola askori.

Komeni da argitzea helduen euskalduntze alfabetatzean Gobernuaren eskaintza zein den: Zubiarte euskaltea Uhartan, funtzionarioendako euskaltea Iruñean, eta Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskolak. Garbi dago, honenbestez, IKAko eta AEKko euskaltegiak direla, zailtasunak zailtasun, nafar heldu askoren euskara ikasteko eskubideari bide ematen diotenak, 1986ko Euskararen Legeak aipatzen duen helburuetako bat “ herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor egiteko tresnak zehaztea “ betetzen ari direnak.

Aurten, berriz, 230.000€ banatuko ditu Gobernuak, ikasleko eta eskola orduko 0,43€, 2004an jaso genuenaren erdia baino gutxiago.

Gobernua zeu izan kanpaina.

Horrela izendatu genuen 2005ean abian jarri eta egun egiten ari garen kanpaina. Kanpainaren izenak berak agerian uzten du Gobernuaren axolagabekeria eta utzikeria. Gobernuak ostrukarena egiten duenez, Nafarroan euskaldunik ez balitz bezala jokatzeko duenez, herritarrok eman behar arnasa gure hizkuntzari, herritarrok egin behar Gobernuak egin behar lukeena.

Kanpaina honen bidez hiru helburu erdietsi nahi ditu Nafarroako IKAk. Lehenik, Gobernuaren hizkuntza politika itxuragabe bezain lotsagarria salatu nahi dugu, bere osotasunean, eta batez ere, helduen euskalduntze alfabetatzean erakusten ari den jokabide negargarria. Bigarrenik, diru bilketan ari gara, herritarren laguntza ekonomikoa bildu nahian, gure ikasleek euskara ikasteagatik gehiago ordain ez dezaten. Eta azkenik, helduen euskalduntze alfabetatzearen garrantziaren gaineko gogoeta bultzatu nahi dugu, herritarrak sentsibilizatuz.

Salaketa lanari dagokionez, mobilizazio ugari egin dugu azken urte eta erdi honetan. Elkarretaratzeak (Foru Parlamentuaren aurrean, CDN alderdiaren egoitza atarian, Hezkuntza Departamentuaren aurrean, UPNren egoitza atarian, Gobernuaren egoitzaren aurrean hilean behin egiten duguna...), bi manifestazio Iruñean, giza katea, orri informatiboen banaketak (Iruñerrian bakarrik, 50.000 orri baino gehiago, Sadarren, lantegietan, eskoletan eta abarretan). Bestalde, alderdi politiko guztien ordezkariekin elkartu gara, Foru Parlamentuko Hezkuntzako Batzordean izan ginen, Hezkuntza Departamentuko zenbait arduradunekin eta Luis Campoy kontseilariarekin berarekin ere bai.

Kanpainaren baitan, herritarren diru aportazioa 68.000 eurotik gorakoa izan zen 2005ean. Laguntza horri esker, ikasturte honetako matrikula %10 baino ez dugu garestitu behar izan. Diru bilketa horretan Arturo Kanpion Fundazioaren laguntza izan du IKAk, *babesleek*, 250 euroko laguntza eman digutenek, eta *laguntzaileek*, 250€ baino gutxiagoko aportazioa egin dutenek, errenta aitorpenean desgrabatzeko aukera izan dezaten. Aurten, berriz, norbanakoei ez ezik, era guztietako talde, kolektibo, eskola, ikastola, lantegietako langile batzorde, peña eta abarrei helarazten ari gatzaizkie gure laguntza eskaria, Nafarroako Gobernuak euskaltegiak diru aldetik ito ez ditzan eta matrikulak izugarri garestitu beharrik izan ez dezagun. Gainera, 2006an diruz laguntzen digutenen artean 1.000 euroko bidaia txekoa zozketatuko dugu urte amaieran.

Martxoaren 13tik 16ra bitartean euskara klaseak doan eman genituen Arturo Campion euskaltegian. Ekimen horren bidez, euskaltegian ikasten ari ez ziren hainbat lagunek gure lana gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Horrela, aste horretan 39 lagun aritu ziren euskara ikasten dohainik, eta berriz ere agerian gelditu zen asko direla denbora eta diru faltagatik euskara ikasten hasten ez direnak.

Nola lagundu.

Gobernua zeu izan kanpainan lagundu nahi duenak bide bat baino gehiago du horretarako. Batetik, funtsezkoa zaigu kanpaina honen berri zabaltzea, nork bere ingurukoaren artean, euskaltzale guztiek Nafarroako euskaltegien egoera zein den jakin dezaten. Bestetik, ezinbestekoak zaizkigu diru aportazioak, Nafarroako Gobernuaren diru laguntzen murrizketari aurre egin ahal izateko. Izan ere, IKAk ez du AEKren *Korrika* edo ikastolen *Nafarroa Oinez* bezalako ekimenik. Beraz, norbanakoek edota taldeek 250 euroren truke *babesle txartela* eskuratu dezakete, eta diruz okerrago dabiltzanek aportazio xumeagoren bat egin. Gogoratu desgrabatu ahal izateko zenbait datu eman beharko dituzuela: izen-deiturak, helbidea, DNI zenbakia eta telefono zenbakia. Hona hemen gure kontu zenbakiak:

EUSKADIKO KUTXA: 3035 0058 31 0580084113

CAN: 2054 0152 35 914012555.4

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazue hurbilen duzuen IKAkoko euskaltegira edo www.ikanet.net orrira.

Euskaraz, ikas eta ari.